

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LAUDIOKO UDALA

#### **Udalan hutsik dauden lanpostuak betetzeko merezimendu lehiaketa. Biltegiko arduraduna, 5011 kodea duen lanpostuaren ebazpena**

Amaitu egin da Laudioko Udalan biltegiko arduraduna, 5011 kodea duen lanpostua betetzeko, merezimendu-lehiaketa. Lehiaketa horren deialdia 2019ko azaroaren 5eko 2675 zenbakiko alkate-udalburuaren dekretu bidez egin zen eta 2019ko azaroaren 27ko 137 zenbakiko duen ALHAOn argitaratu zen. Ondorioz, 2020ko martxoaren 4ko alkate-udalburuaren 0458 zk. duen dekretu bidez lanpostu hori esleitu egin zaio Fernando Ortega Azpuru karrerako funtzionarioari.

Atxikipen-lanpostuko kargua ebazpen hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo hiru egun baliidunetan utzi beharko da.

Lanpostu berriaz jabetzeko data kargua utzi eta hurrengo eguna izango da.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioko, hilabeteko (1) epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik edota hurrengo egunetik aurrera, ebazpena eman duen organoari berari, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritz.

Aukerako berraztertze errekurtsorik jartzen ez bada, bide judiziala irekiko da, eta, beraz, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da txandaka egokituko den Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi (2) hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik edota hurrengo egunetik aurrera.

Publiko egiten dena, indarrean dagoen legedia betez.

Laudion, 2020ko martxoaren 30ean

*Alkate-udalburua*

**ANDER AÑIBARRO MAESTRE**